

## OLERKI HAUEN AZPI-HISTORIAZ (1952-1978)

Poema-liburuari literatur kritikaren ereinotza jartzeko ez naiz ni batere egokiena; hortaz, hobe, egitekoari beste alde niretzat ezagunagoren batetik heltzen badiot. Eta Hinki-hanka irakurri duenari ez zaio beharbada guztiz lekuz kanpoko irudituko egin nahiko nukeena: olerkiotan fermutasunez isladaturik dauden ideia-jarrereren nondik norakoa zerbait argitzea, alegia.

Liburu honetako ia olerki guztiek beren data daramate: 1958tik 1976raino doazen urteetako datak (edizioa 1978an kaleratu zen). Olerkariak berak eman zizkien urtea, urtaroa nahiz hilabatea, eta inoiz eguna ere. Maiz, kasik historiarik gabeak otu dakizkigukeen poemek, ba, beren unea dute, eta une horretako beren egokiera eta pausaldia.

Badira hemen, liburuan, gizatasunari orokorki dagoz-kion bizipenak —amodioa, herioa...—, baina baita inguru zehatzari lotutakoak ere —Euskal Herria eta bertako gi-

zartea, sendia, lagunak...—. Hots, inguruko historia sozial eta talde-etorkizunari so daudenak, eta guztiz biografikoak.

Horregatik, historiaren zehaztasuna, batzuetan izen pertsonal eta guzti, bere gordinean sartzen da testura. Denboraz kanpoko itxura duen zenbait pasartetan, kronologia eta egutegia tartekatzen dira.

Poema hauek, lehenik obra idatzi zabalagoan dute bezeko kokaleku jatorra, eta olerkariaren bizialdi jakin baten ondorio dira. Autorearen obra argitaratu osoak eta mota guztietako paper argitaragabeek (egunkari, gutun, bilera-ohar eta abarrek), uste dugunez, dimentsio berria eman diezaioke Erdozainzi-ren olertiari. Tamalez, jatorri intelektualen ikertzapen sistematikoa burutzeko dago oraindik; baina, jakin, badakigu zer bait hala ere.

Juxtu, poema hauen bezperan (1958), egituraturik ikusten da idazlearen pentsamendu-barrunbea. Ordurako mamituta zeuden haren baitan sorburu ezberdinetatik iritsi eta beretu zituen langaiak. Iturriok honela zerrenda litezke: kristautasun frantziskotarra — pertsonalismo mouniertarra — euskal abertzaletasuna — pentsamendu anti-kolonialista.

Pertsonalismo mouniertarra eta literatura antikolonialista ez dira sobera aipatu izan Erdozainziri buruz mintzatzean; hala ere, ezin da saihestu hori dena, idazleak eta gizonak erakutsi zuen euskal nazioarekiko eta gizartearekiko leialtasun ziur, heldu eta eraginkorra ulertzeko balio baitu horrek.

Hark maite izan zituen lurra eta izadia eta herria eta herritarrak, denak ageri dira olerkiotan. Manexen biografian, atxekimendu horren erroak teoria guztien aurrekoak eta ondokoak izan arren, hogeita hamar urtetako gogoeta pertsonala —helduz joan zen gogoeta izan zelako, hain

zuzen— ez genuke ongi balioetsiko iturri horien ezagumendurik gabe.

Liburu hau amaitzean, izan bekit zilegi, ba, Manexen pentsa-moldearen zutabe teoriko nagusiak gogoraraztea, hemen aurreko orrialdeetan irudimen eta sentimenaren al-tzoan iritsi zaiguna beste ikusbide batetik begiratzeko.

Erdozainziren prestaketa intelektuala 1952tik 1964rainoko urteetan jarriko nuke, batez ere, nahiz eta Tolosako urtealdiko ekarpen pertsonala —euskalgintza kristauari da-gozkionetan— inoiz baino emankorragoa den (1966-72).

Kristautasun frantziskotarra aipatu dut, arestian. Biz-pahiru epe nagusitan landu zuen Manexek barruti hau. Es-treina, bere istudio-urteetan, Béziars, Quimper eta Paben, nobiziatua eta Filosofi ikasketak egin zituenean (1951-56). Batez ere bere egunkarian ikus liteke hori. Ondoren, Okzi-taniako Tolosan fraide gazteen arduradun zela entseatu zen berriro esparrua jorratzen (1966-72). Frantziskotarren ikastetxeetan ez zitzaion falta izan giro egokirik.

Hurrengo epe nagusian (1972-84), kristautasun eta frantziskotartasun horiek Euskal Herriaren zerbitzurako birpentsatuko ditu; ez, ordea, bere etxeko gela itxian, tal-dean eta inguruaren faboretan baizik. Bi kristau lagunar-tetan ekin zion berezikiago lan horri: Domintxine-n eratu-tako frantziskotarren anaiartean lehenik (1972); eta “Fe-dedunak” elkartean arduradun bezala kristau laikoekin batera gero. Inoiz gogoeta hori beste lagunarte batzuetara ere hedatu zen, gainera, baita Hegoaldera ere, Erlijioso euskaldunen Loiolako bileretara (1978). Manexen obra ez da ulertu ahal izango zutabe hau gabe, jada azterlan argi-taragabe batek erakutsi digunez.

Filosofi mailan ere sostengu ezaguna izan zuten Erdozainziren pentsamendu eta jokabideek. Frantzian, gerrate-ondoan, puri-purian egon zen pertsonalismo kristauan, alegia. Mounier-en lana burututa zegoen (1932-50) Manexek bere ikasketei heldu zienean, eta gure idazlearen adiskide lekukoengandik badakigu pozarren irakurri zituela pentsatzaile frantsesaren lanak, 1949ko *Le personnalisme*, adibidez. Hegoaldeko euskaldunontzat ez da hau baxterez harrizkoa, Erdozainziren urte beretsuetan hemen ere Donostiako “*Conversaciones Católicas Internacionales*” zirelakoetan, edo Arizmendiarieta kooperatibistaren lanetan nabaria baita pertsonalismo horren arrastoa. Zoritxarrez, Manexengan korrante honen eragina zenbaterainokoa eta nolakoa izan zen jakiteko beharko genukeen ikerlana egiteke dago oraindik.

Pentsamendu antikolonialista da hirugarren urratsa. Mounier-ek 1932an sortu zuen *Esprit* aldizkaria, eta batik bat bide horretatik iritsi zitzaion Manexi beste iradokizun sustagarria: deskolonizaziori buruzko pentsamendu sozio-politikoa (1954-1961), berehala Euskal Herrira begira egingo zuen pentsamendu-eguneratzean biziki lagunduko ziona. Hau ez zen, ordea, literatur teoriko hutsaren gain egin behar izan zena, egunean eguneko gertakari larriagoen artean baizik.

Manexek idazteari ekitean, gertakariak samaldan zetozen orduko gazteriaren gain, eta ez harridura eta arrisku pertsonal esturik gabe. Indotxinako eskarmendu gaiztoaren ondoren (*Dien Bien Phu*, 1954ko maitza), Algeriako gerrari ekin zitzaion (1954ko azaroa), eta Marokko eta Tunisia-ri independentzia aitortu zien Frantziak (1956ko martxoaren 2/20).

1956an salatu zuen Sartre-k Algeriako gerra bere aldizkarian (“Le colonialisme est un système”); baina urtebete lehenagotik Akitaniako frantziskotarrek bazuten Missions Franciscaines d’Aquitaine deituriko bihilabete-karia, (e.b., 1956an Islam-ari eta langile etorkin afrikarrei zenbaki bereziak eskaini zizkiena); gerora, aldizkari hori, 1960.etan, Frères du Monde bezala aldizkari arrakastatsu bilakatu zena, 1973an desagertu zen arte. Etxe barruan zegoen, ba, bizirik, Hirugarren Munduarekiko arreta.

Eta kanpoko beste aldizkari bat aipatu behar da hemen: Esprit, pertsonalismoaren bozeramalea zena, frantziskotarren Seminarioetan hartu ohi zena. Hain zuzen hantxe agertu zen, 1957ko urtean zehar, Albert Memmi judegu tunisiarraren kolonialismoaren aurkako zenbait saiakera kritiko; gerora, 1966an, Portrait du colonisé bezala argitara emango ziren lanak, prezeski. Sartre, Memmi eta Fanon (1952, 1961) ziurki jarri behar dira Manexek erabili zituen iturrien artean, eta beharbada, baita Césaire martinikarra ere (1939).

Hori horrela, inoiz salatu ere egin zitzaion Frantzia “barneko” euskal arazoaren analisisa pentsamendu-molde hartatik aztertu nahi izana. Erdozainzik bertatik bertara bizi izan zuen deskolonizazioaren drama. Aitaren heriotzaren berri emango zion telegrama iritsi zitzaionean eta berori ireki aurretik ere Algeriako anaia soldadua etorri zitzaion gogora lehenengo, liburu honen aintzin-solasean esaten digunez. Manexen eskutitzen artean bada gutun-sail bat gerra hartaz ari dena. Ibarlarraren buru-bihotzetan herrien askapena eta guztien arteko internazionalismo anaikorra, neurri on batean, literatura antikolonialistaren oihartzuna dira garbi-garbi. Horregatik, liburu honetako

hainbat ahapalditan irakurri duguna ikuspuntu honetatik ere argi liteke.

Idea-korrante horien guztien artean, Manexek berezi-bereziki bere Euskal Herriarekiko abertzaletasunaren gain jaso zituen bere gogoeta eta iharduera. Abertzaleen munduan 1950. etako hamarkadan, artean bizirik zeuden gerraurreko euskal kultur gizon-emakumeak ezagutzetik hasi zen: Barandiaran, Aita Donostia, Leizaola, Lafitte, etab. Ikasketa-urteetan saiatu zen, bestalde, bizi izan zen tokietako euskal ikasleekin harremanetan izaten, eta euskal ikasle-elkartearen udako bileretara iristen (Donibane-Garazi, 1954; Atarratze, 1956; Hazparne, 1957).

Era berean, berriro Euskal Herriratzean, orduan euskal kulturaren gidari berriak zirenekin, izan zuen eskutizketarik: Narbaitz, Iratzeder, San Martin, Txillardeggi, Aresti, etab. Berezikiago hurbilak izan zituen Jakin-eko lagunak, ihardunean hasi ere, hilabete beretan hasi baitziren (1956). Inguru horrek eta bere adiurre irekiak lagunduko zioten gazteagoenganaino ere heltzen.

Euskaltzaleen inguru sozial horretan, aurkitu zuen Erdozainzik —erbestean bizi izan zen urte luzeetan ere (1945-59, 1964-72)— eguneroko euskalgintzarekin harremanetan izateko modurik.

Baina, harreman pertsonala ez ezik, ideien eta egitasmoen trukaketa ere izan zuen idazle abertzaleak. Haren liburutegitik dakigunez, maite zituen Euskal Herriaz edo euskaraz ziharduten liburuak. Bizitza osoan zehar joan zen bere biblioteca hornituz. Bihotzetik maite zuen Euskal Herriaren historia ezagutzea, eta zenbait historilari jada klasikoren obrak beren lehen edizioetan eskuratu ahal izan zituen: Daranatz, Haristoy, Dubarat, etab. Jakin-min

biziagoz bilatu ohi zituen, gainera, euskal disidenteen albisteak (protestanteak, Matalas, etab.).

Euskal literatura zaharraren maitale suharra zen Erdozainzi, eta mireslea ez ezik, baita kontsumitzaile eta hedatzailea ere. Erbestean bizi izan zenetan, arbasoen hizkuntza zaharraren ahotsak lotzen zuen sorterriarekin. Klasikoen irakurketaren ondoan, euskal antzertia (udaoroko pastoralak ez zituen galdu nahi izaten) eta bertsoaritza (Auspoa amultsuki jaso ohi zuen) ikusi zituen gure tradizio kulturalaren gune jator eta ahalez errazkiago egunergarri bezala. Bordeleko Unibertsitatean euskal Kanta Berriaz ere eman zuen hitzaldia (“La chanson basque contemporaine: Phénomène social”, 1979ko urtarrila).

Ezaguna zuen euskal abertzaletasunaren literatura, inoizkoa eta egunean egunekoa (Arana bezala Krutwig ere bere liburutegian dago, eta zer esanik ez alderdien bulletinak, etab.). Erdozainzik beti zaindu zuen, arreta osoz zaindu ere, euskal kultur aldizkarien hartzea. Eta harpidedun irakurle zintzoa izan zen: etorri ahala irakurtzen duten horietakoa.

Inguru guzti horrek (kristautasuna, pertsonalismoa, antikolonialismoa, abertzaletasuna), eguneroko ihardunetik gure herriaz ikasitakoarekin batera, elikatu zituen haren ideia-mundua eta sustatzaile-lana. Erdozainzi erroretik bilakatu zen abertzale moderno bat: internazionalista (Japoniara misiolari gisa joatea ere eskatu zuen) eta euskal abertzalea, kristaua, sozialista, baina batez ere Euskal Herriaren geroa modernotasun bizi eta aldakorrean definitu nahi izan zuena.

Liburu honetako irakurleak ikusi berri duen hainbat orrialde, iradoki ditugun testuinguru horietan hobeki ulertuko da, uste dugu. Hala ere, itxaro dugunez, Erdozainziri buruz argitaratzear dauden biografia eta azter-lanek emango digute, noski, laguntza hoberik.

Joseba Intxausti

1995-02-22